

Itxaro Borda

Gure kare-bihotzak
Nos cœurs calcaires

Poemak
Poèmes



Hitzaurrea

Bi urtez, udaran, 2024an eta 2025ean, Izturitze eta Otsozelhaiko eremu prehistorikoan gida izan naiz.

Harpean sartzean, denboraren sakontasunak eta humanitatearen kondairaren loditasunak harrapatu naute. “Litofonoaren” gelan, begi bat botatzen nion sabaitik isurtzen zen ur ttantta perfektuari, kasik betikotasun une baten metronomoa zenari hain zuzen. Harpeen musikaltasunak, isiltasunak eta izendatzen ahal ez nituen azantz batzuk deiadar poetikoaren antzera eragiten zuten nigan.

Harpean pasatu dudan egun bakoitzak poema, oroitzapen edota zeharkatu espazioen hurbileneko idazkuntza baten “oparia” egin dit. Testu horiek dira bilduma honen materia primak, mineralak eta organikoak aldi berean, iraganarekin, gaurko aktualitatearekin eta nire egunerokoarekin lotuak direla. Euskaraz izkiriatu ditut poema hauek, eta gero itzuli ditut frantsesera, sorkuntza lana bukatzeaz nintzelarik nireak diren bi hizkuntza horien soinuekin jostatuz.

Hemen bertan eskertu behar ditut zenbait lagun, hauek gabe liburua ez bainuen argira ekarriko. Lehenik, Joelle Darricau, harpe hauen arduraduna, bere konfiantza eta aspal-diko adiskidantzarengatik. Bai eta Aurelia Lassaque ere, okzitaniar poeta handia, Lot departamenduko Autoire herrian duen de Laroque Delprat jauretxean egonaldi literario baten proposamena egin zidalako. Baliatu nintzen, besteak beste, eskualde hartako Pech Merle, Lascaux, Regourdou eta Presqueko kobazuloak bisitatzeko, ahanzi gabe Brassempouykoa eta gravetiar garaiko bere andere enigmatikoa. Ahantzi gabe Zigor, marrazkiaren oparia eginik, bai eta Fabienne Ludet eta Paskual Rekalde testua xeheki berrirakurtzeagatik.

Liburu honen idazketa niretzat egiazko abentura poetiko, ekologiko, musikal eta lagunkina izan da. Desafio bat, halaber, zalantzez leher-turiko gure aro hauen ingurugiroan.

Itxaro Borda

Izturitze

Préface

Au cours des étés 2024 et 2025, j'ai été guide au cœur du site préhistorique d'Isturits et d'Oxocelhaya. En entrant dans la grotte, j'étais happée par la profondeur du temps et l'épaisseur de l'histoire de l'humanité. Dans la salle du « lithophone », je lançais un regard à la goutte d'eau parfaite tombant du plafond, métronome d'un moment presque éternel. La musicalité des grottes, le silence et certains bruits inconnus ont agi en moi comme des exhortations poétiques.


Chaque jour passé dans la grotte m'a fait « cadeau » d'un poème, d'un souvenir ou encore d'une nécessité d'écriture au plus près des espaces traversés. Ces textes constituent la matière première de ce recueil, minéral et organique à la fois, en relation constante avec le passé, l'actualité présente et mon quotidien. J'ai écrit ces poèmes en euskara, je les ai traduits en français, en jouant sur les sonorités de ces deux langues miennes, lors de la finalisation de mon travail de création.

Je tiens à remercier, ici, quelques personnes, sans qui ce petit livre n'aurait pas pu voir le jour. D'abord, Joëlle Darricau, responsable de ces grottes, pour sa confiance et son amitié très ancienne. Puis, Aurélia Lassaque, grande poète occitane, qui m'a proposé une résidence littéraire dans son manoir de Laroque Delprat à Autoire dans le Lot. J'en ai profité pour visiter les grottes de Pech Merle, Lascaux, Regourdou, Presque, ainsi que Brassempouy et sa Dame énigmatique de la période gravettienne. J'adresse également tous mes remerciements à Zigor pour son dessin, ainsi qu'à Fabienne Ludet et Paskual Recalde pour leurs relectures.

L'écriture de ce recueil a été pour moi une véritable aventure poétique, écologique, musicale, amicale également. Un défi aussi, dans le contexte de nos temps écrasés par le doute.

Itxaro Borda

Isturits





Oxocelhaya

Azpiko munduan tantak
diote lehenokoa kantuz.

Dans le monde souterrain,
les gouttes chantent le passé.

Zigor, 2025

Tribal songs

I.

Je suis une fille aînée.
Pourtant, en ce matin des Cendres où tu
rendis ton dernier soupir, je fus ta mère,
celle que jamais tu n'étreignis :
nombre de mes sœurs sont nées
de ventres arides de matrones inconnues
dont les enfants, accrochés à leurs seins,
crient famine.
J'ai perdu les fils de ma tribu.
Mon identité est devenue floue.
Je suis une fille aînée :
Enterrez-moi vivante
à l'abri des grottes d'Oxocelhaya.

Tribal songs

I.

Alaba gehien bat naiz.
Azken-hastu zinen Hauste goiztirian ordea
nehoiz gozatu ez zenuen
zure ama izan nintzen:
haurrak, bular agorretan
gose auhenez dabilzkien amaizun
ezezagunen sabel idorretatik
munduratu ahizpa ugari daukat.
Sendiaren hariak galdu ditut.
Izatea uhertu zait.
Alaba gehien bat naiz:
Otsozelhaiko harpearen maldan
bizirik ehortz nazazue.

II.

La lumière s'éteint.
J'effleure les rochers.
L'obscurité n'a pas de frontière,
de religion,
d'obstacle,
encore moins de critère de beauté.
La lumière s'éteint.
J'ai des yeux et je suis aveugle.
J'ai des oreilles et je suis sourde.
J'ai des routes et je traîne
sur les voies habituelles
de la pensée dévastée.
J'ai des mots et je suis muette :
pourquoi n'ai-je jamais dit
qui j'étais ?
La lumière s'éteint et
je caresse le corps
de la nuit douce comme
si c'était le tien.

II.

Argia itzali da.
Harriak ferekatzen ditut.
 Ilunpeak ez du mugarik,
 ez du sinisterik,
 ez du trabarik,
are gutxiago edertasun eredurik.
Argia itzali da.
Begiak ditut eta itsu naiz.
Belarriak ditut eta gor noa.
Bideak ditut eta pentsuaren
 ohizko errepide
 sarraskituetatik nabil.
Hitzak ditut eta mutu nago:
zergatik ez dut erran sekula
 nintzena nintzela?
Argia itzali da eta
gau malguaren gorputza
laztantzen dinat
birea bailitzan.

J'ai toujours écrit
Depuis Isturits

Mes mots naissent
De la grotte obscure

Pauvres plaintes
De la terre

Croute-miroir
De la mie du temps.

Beti idatzi dut
Izturitzetik

Harpe ilunaren
Hitzak dira nireak

Lurraren auhen
Pobreak

Denbora mamiaren
Azal-miraila.



Biografia Biographie

Itxaro Borda

1959an sortu zen Baionan.

Historia ikasi zuen,
postan lan egin du idazle gisako ildo
aberatsa eramanez, bereziki euskaraz,
poeta, nobelagile, kronikari, antzerki
eta euskal kantarientzako abesti
hitz-egile bezala.

Née à Bayonne en 1959, Itxaro Borda
est historienne de formation.
Elle a travaillé à La Poste tout en menant
une activité foisonnante d'écrivaine,
principalement en euskara,
comme poète, romancière,
chroniqueuse, auteure de théâtre
et de textes pour les chanteurs basques.